

Nazio Batuen **UNPRI sare globalaren ikuskaritza** gainditu du bigarren urtez

Kutxabanken gobernantza estrategiak eta inbertsio arduratsuek ‘A’ kalifikazioari eusten diote

- **Nazioarteko erakundeak iaz eman zion ebaluazioa berretsi dio Kutxabank Gestion kudeatzaileari**
- **‘Akziodun arduratsuaren’ zeregina hobetzen jarraitu du, inbertitzen duen enpresetako batzarretan partaidetza-aktiboa nabarmen handitu ondoren, Europako enpresetan batik bat**

2020ko abuztuaren 30ean. Nazio Batuen UNPRI erakundeak inbertsio arduratsuen esparruan egin dion ikuskaritzan, gobernantzaren estrategian eta inbertsio arduratsuen alorretan, **‘A’ kalifikazioa** eman dio Kutxabank Gestioni.

Honela, kudeatzaileak iaz nazioarteko erakunde honen eskutik jaso zuen balorazioa berretsi du. Ikuskaritza hau egin duen **bigarren aldia** du Kutxabank Gestioneak, eta ekimen honetan espainiar finantza-sistema osoan aitzindaria izan da.

Kutxabank Gestioneak inbertsio arduratsuarekin konpromiso historikoa du. Bere inbertsioetan jasangarritasun osoa lortzeko prozesua bete ostean, gaur egun inbertsio fondoetan eta aurreikuspen planetan kudeatzen dituen **aktibo guztiek**, inbertsio arduratsuen irizpideak betetzen dituzte, eta beraz aintzat hartzen dituzte ingurugiro, gizarte eta gobernantza izapideak.

Gainera, inbertitzen duen enpresetan **‘akziodun arduratsuaren’** zeregina indartzen jarraitzen du, inbertitzeko edo desinbertitzeko erabakiak hartzerakoan kontutan izaten baititu gizarte gaietako, naturaren errespetuarekiko edo bidezko-gobernuko irizpideak. 2020. urtean, Kutxabank Gestioneak **ia bikoiztu egin** du enpresa hauetako akziodunen batzarretan egin duen lana. Hazkunde hori oso aipagarria izan da Europan aritzen diren sozietateen kasuan, **nazioarteko 37 elkarteren akziodunen** batzarretan parte-hartu baitu, eta hauekin ‘ISR’ gaietan elkarriketak izan baititu.

Kutxabank Taldearen inbertsio fondoak eta pentsio planak kudeatzen ditu Kutxabank Gestioneak. 2017. urtean bateratu zen Nazio Batuen PRI sare globalera. Erakunde honek inbertsio erabakiak hartu eta aztertzerakoan ingurugiro, gizarte eta gobernantza korporatiboko irizpideak kontutan hartzen diren neurtzen du.